

Automoziorako txasisaren fabrikazioko azken aurrerapenei buruzko jardunaldia

2013/07/11

Ibilgailuen txasisa fabrikatzeko azken aurrerapenak, hala material berrietan nola prozesuetan, eztabaidatuak izan ziren jardunaldi honetan. Jardunaldiaren helburu nagusia automoziorako txasisa fabrikatzeko erabiltzen diren materialen eta prozesuen joerei buruzko ikuspegia ematea da, konformazioko erakusketa praktikoak ikusteaz gain, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko instalazioetan. Automozioaren sektorea etengabe garatzen ari da, igorpenak murrizteko beharrari erantzuteko eta estandar berrietara egokitzeko soluzioen bila. Jarduera ildo nagusietako bat ibilgailuaren pisua murrizten saiatzea da, errektantza motorren eraginkortasuna handitzea eta gero eta gehiago lantzen ari den ibilgailuen elektrifikazioa.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak antolatuta, MONDRAGON Automocion, Automotive Intelligence Center (AIC) eta SERNAUTOren lankidetzarekin, jardunaldiak hainbat enpresatako nazioarteko espezialista ospetsuen partaidetza zuen, horien artean egonik FRAUNHOFER LBF, LOTUS CARS LIMITED, SSAB, ALCOA, SGL Technologies GmbH eta Hunstman Advanced Materialseko adituak, eta erabiltako materialei eta arlo honetako joerei buruz duten ikuspegia azaldu zuten. Gainera, jardunaldian bertako enpresak ere agertu ziren, hala nola GESTAMP, BATZ, Fagor Ederlan eta CIE Automotive, automozio osagaien fabrikazioaren arloan dituzten esperientziez mintzatzeko eta, horrez gain, etorkizunean erabiltzeko aurreikusita dauden material eta prozesu berriei buruz duten ikuspegia azaldu zuten.

Automoziorako txasisa fabrikatzeko erabiltzen diren materialen eta prozesuen arloko joera nagusiak aztertu ziren.

Jardunaldiak enpresen arteko harremanak ezartzeko foro gisa balio izan du, eta automozio osagaien konformaziorako materialen eta prozesuen eremuan dauden berrikuntzei buruz eguneratzeko.



Automozio jardunaldia